

“BIZITZA JOKOAN” MAHAI INGURUAK

Kriminalizazioa eta Giza Eskubideen defentsa

Bertako eta Latinoamerikako gonbidatuen parte-hartzearekin

Tokia: Koldo Mitxelena Kulturunea

Egunak: maiatzak 29, 30 y 31

Ordua: 19:00

Sarrera libre



Tamalez, askotan, bizitza arriskuan jartzen da BIZITZA bera defendatzerako orduan... errefuxiatutako pertsonen bizitza, emakumeena eta Ama Lurrarena, kasu.

Finantza sistemaren eta enpresari nagusien boterea (nagusiki gizonezkoena) hazten den bitartean, murriztu eta desagertu egiten dira askatasunak zein herrien eta pertsonen eskubideak. Gaur egun, jazarri eta kriminalizatu egiten dira emakumezkoak eta gizonezkoak; zehazki, eskubide horiek defendatzeagatik, horien urraketa salatzeagatik, edota botere horiei zein

sistema menperatzaileari aurre egiteagatik.

Hiru mahai-ingururen bitartez, pertsona horiekin nahi dugu espazio bat partekatu, hemengo eta Latinoamerikako pertsonekin; bizia ematen baitute lurra izateko eskubidearen defentsan, babes eta aterpea eskatzen, eta emakumeentzat indarkeriarik gabeko bizitza askea aldarrikatzen. Entzun dezagun, bada, kontatzen digutena; eta hausnartu dezagun kolektiboki nola babes ditzakegun euren borrokak.

ANTOLATZAILEAK



MUGARIK GABE
Organización No Gubernamental de Cooperación
para un Desarrollo Humano, Equitativo y Sostenible
Web : www.mugarikgabe.org



Comisión de **Ayuda**
al **Refugiado** en Euskadi



Maiatzak 29, astelehena – LURRA ETA LURRALDE ESKUBIDEA

Herri indigenek, eta horrela beharko lukete gainontzekoek ere, kontzientzia maila handia dute bizitza nahitaez lurraldeari eta lurraldeari lotuta egoteari dagokionean. Hori dela eta, nahiz eta mende luzez jasan errepresioa, indarkeriak, norbere lurretik erbesteratzea eta enpresen makroproiektuen inposizioa; orain inbadituak ez izateko eskubidean zentratzen da haien borroka, haien lurretan bizitzeko aukeran, eta ingurumena babestean, gurea ere badena.

Antzeko borroka da, bestelako testuinguru batean, munduko toki ezberdinetan garatu dutena nekazaritza eta ekologismoko mugimenduek, baita gure inguru hurbilean ere; lurren desjabetzeak gertatu baitira ere bai; eta ingurumena degradatu da, besteak beste, azpiegitura handiak, meatzaritza edo monolaborantza ezartzeko, IBEX 35 eta beste enpresen kudeaketa dela medio.

Errealitate ezberdinak beraz, baina arrazoi eta arazo komunak; berdin jazartzen, kriminalizatzen eta diskriminatzen baitira bizitzaren eta ama lurraldearen defendatzaileak hemen eta han.

Aurkezpena eta moderazioa: **Jesus Gonzalez Pazos** (Mugarik Gabe)

Parte hartzen dute:

Edgar de León: abokatu indigena maya (Guatemala)

Martin Mantxo: Ekologistak Martxaneko kidea

Josetxo Lukas: baserritarra, Baserria XXI mugimenduko eta Lurraren Orena kolektiboko kidea.

Maiatzak 30, asteartea – ASILO ETA BABES ESKUBIDEA

2016an, 36 herrialde baino gehiagok bidali zituzten pertsonak legez kanpo haien bizitzak eta eskubideak arriskuan zeuden lurraldeetara. Urte berean hil ziren Mediterraneo itsasoan edota lehorrean 5.000 lagunetik gora gerratik eta pobreziatik ihes egiteko saiakeran. Ildo beretik, milaka eta milaka dira lurralde ezberdinak zeharkatzen dabiltzan pertsonak, gizatiarrak ez diren baldintzetan bizirautean ari direnak. CEAR eta Amnistia Internationalen datu horiek agerian uzten dute Europari ez zaizkiola axola pertsona horien bizitzak, Europak progresiboki ahaztu egiten dituela giza eskubideak, berauek larriki urratzen baititu Turkiarekin sinatutako akordioa bezalakoek, edo bestela, iraunkorki "beste albo batera" begiratzen duelako, milaka eta milaka pertsona horien egonezinaren aurrean.

ACNURrek argitaratutako datuen arabera, Kolonbia da, 7 milioi lagun nahitaezko desplazamendurekin, barne mailan biztanleen desplazamendu gehien izan duen munduko bigarren herrialdea, Siriaren ondoren, gatazka armatuaren faktore ezberdinak direla kausa. Egun, nahiz eta elkarrizketa, negoziazio eta Bake Akordioak sinatzeko garaia den, eskubideen defendatzaileen aurkako erailketak gertatzen dira oraindik ere (lider indigenak eta baserritarrak, besteak beste); are gehiago, areagotzen ari dira. 2017an, urtarriletik martxora arte, Somos Defensores erakundeak gizarte zibileko 25 lider eta aktibista komunitarioren erailketak erregistratu ditu.

Bi testuinguruetan, errefuxiatutako eta desplazatutako pertsonak urratuak ikusten dituzte euren eskubideak, kasu askotan bizitzeko eskubidea barne; mundu honetan, hormak eta hesiak pertsonen jartzen baitzaizkie, eta ez kapitalari.

Aurkezpena eta moderazioa: **Andrea Bertomeu**, EHU-n doktoradutza burutzen, Giza Eskubideak, Botere Publikoak, Europar Batasuna: Eskubide Publikoa eta Pribatua.

Parte hartzen dute:

Javier Orozco: errefuxiatu kolonbiarra, Asturiaseko Giza Eskubideen Programaren Koordinatzailea.

Patricia Bárcena: CEAR Euskadi-ko zuzendaria.

Noemí Ostolaza: Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politikako Sailean Aholkularia.

Maiatzak 31, asteartea

INDARKERIARIK GABEKO BIZITZARAKO EMAKUMEEN ESKUBIDEA

2012 eta 2014 urteen artean, giza eskubideen emakume defendatzaileen aurkako 1.688 eraso egon ziren (erregistratuak) El Salvadorren, Guatemalan, Hondurasen eta Mexikon; erasoak % 45,7 igo ziren. Halaber, 2012 eta 2016 urteen bitartean, zonalde horretako 42 giza eskubideen emakume defendatzaile hil zituzten, eraiketa horietako gehienak zigor gabe jarraitzen dutelarik. Erdialdeko Amerikako Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimenaren datuak dira.

Bestalde, Mugarik Gabek eta Femincidio.net-ek berriki egindako ikerketak azaleratzen duenez, zifra ofizialetatik harago, 2010 eta 2015 urteen artean 33 emakume erail zituzten Euskadin eta Nafarroan emakume izate hutsagatik. Indarkeria matxisten izebergaren punta baino ez dira, espresiorik larriena.

Nahiz eta indarkeriaren eta inpunitatearen maila ezberdinak eman, emakumeek jarraituak, jazarriak, mehatxatuak eta kriminalizatuak izaten jarraitzen dute; Giza Eskubideen betetzea eta indarkeriarik gabe bizitzeko emakumeen eskubidea eskatzeagatik erailtzearaino.

Aurkezpena eta moderazioa: **Ana Gómez** (Mugarik Gabe)

Parte hartzen dute:

Irma Lima: El Salvador-eko “Colectiva Feminista para el Desarrollo Local” erakundeko kidea

Maggy Barrere: Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoko zuzendaria eta Zuzenbidearen Filosofiaren irakaslea (EHU)

Marta Mato: Jurista. Sexualitate juridiko eta estatuaren kritika feministan aditua.

Kontaktua eta elkarrizketak:

gipuzkoa@mugarikgabe.org – xabi@mugarikgabe.org
943 44 59 77

Informazio gehiagorako: #BizitzaJokoan

 www.mugarikgabe.org	 @mugarikgabe	 Mugarik Gabe
www.ekologistakmartxan.org	@ekologistak	EkologistakMartxan
www.cear-euskadi.org	@CEAREuskadi	CEAREuskadi

Laguntzen du:



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzaren Bulegoa
Negociado de Cooperación